

## Adrian Celaya Ibarra gogoan

Geografiari erreparatuz gero, herri txikia da gurea, baina zuk ez zenuen txikitzat. Behin batean, esan zenuen mundua txiki ikusten duena ez dela konturatzen inguruan dituen pertsonekin, ez duela antzematen pertsona horietariko bakoitzak barnean daraman ideia- eta sentimendu-altxorra. Halaber, zahartzaroak eman ohi duen eskarmentutik, esan zenigun liburuen abstrakzioan murgilduta ibiltzeagatik, alegia, errealitatetik at, zuk zeuk ere askotan faltan bota zenuela ahaleginik egin ez izana hurkoaren ariman sartzeko. Damu zinen antza. Izan ere, deskubritu omen zenuen itxuratik haratago, pertsona benetan zer den jakiteko ariman sartu beharra dagoela. Horregatik promesa egin zenuen zure lagunak inoiz baino gehiago ezagutu eta maitatzeko (*300 poetas cantan a Bilbao* liburuaaren epilogotik).

Promesa hori aspaldi bete zenuen ordea. Zu zeu ohartu edo konturatu gabe gainera. Nik neuk ez zaitut irakasle gisa ezagutu, ezta magistratu gisa ere. Nagusi ezagutu zintudan. Adinarengatik, zure iloba izan nintekeen. Baina irakurri ditut zuk abstraktutzat zenituen liburu horietako batzuk, eta lasai asko esan dezaket nire arimara heldu zinela, sakon heldu ere.

Gazte aztertu nuen *Vizcaya y su Fuero Civil* liburua, garai modernoetarako foruzuzenbide zibilaren oinarria. Geroago, gai horri buruz idatzi zenuen hainbeste lan irakurtzeko aukera izan nuen, hain zuzen, *Forulege* web-orrialdea abian jarri genuenean. Halaber, oso-osoan bete ninduten zure bestelako lan batzuek. Bada, gure herriaren erakunde juridikoak ez ezik, historia ere zabaldu zenuen lau haizetara, gure herri txikia handi eginez. Horren adibide da *Así nació Bizkaia. De Arrigorriaga al fundador de Bilbao*. Zuk uste baino didaktikoagoa beti, lan labur eta ederrak ere eskaini zenizkigun. Esaterako, euskaldunon nortasunaz aritu zinen di-da batean *Razón y Fe* aldizkarian argitaratutako *Derechos históricos vascos* lanean. Humanista hutsa zinela esango nuke nik. Eta horren adibide nabarmena da *Humanismo y libertad en el Fuero de Bizkaia* lana.

Handia, joria izan da zure lana. Gure herria eta herritarrak hobeto ulertu eta maitatzeko arrazoiak eman dizkiguzu. Hori guztiori gutxi ez eta oinordeko izendatu gaituzu, Zuzenbidearen Euskal Akademiaren bidez aurrera egiteko ardurarekin. Eta pozik onartu ere ardura hori. Gazte egin nintzen bazkide eta bertan ezagutu zintuztedan Javier Oleaga eta zu zeu, hurrenez hurren, idazkari eta lehendakari. Arretaz jarraitzen nituen zuon komentario eta oharrak. Gero, Zuzendaritza Batzako kide izateko aukera eman zenidaten eta harro jarraitzen dut zeregin horretan, oraindik dezente izan arren ikasteko. Bien bitartean, lanean jarraituko dugu Adrian. Lanean zuk utzitako lorratzei jarraituz.

Agur Egun Handira Arte. Adiorik ez Adrian.

**Francisco Javier Arrieta Idiakez.** Deustuko Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle doktorea. Zuzenbidearen Euskal Akademiako Zuzendaritza Batzako kidea.